


## ALDIZKARIAREN URTEKO ALEEN BILDUMA EGITEKO TAPAK



Bete eskaera-txartela eta gure helbidera helarazi:

✉ Elhuyar Kultur Elkartea  
Asteasuain poligonoa,  
14. pabilioia. Txikiardi auzoa  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

☎ ondoko telefonoetara deitu eta  
Maiერი eskatu:

(943) 363040/41

☒ faxez eskaera egin:

(943) 363144

edo posta elektronikoz eskatu:

✉ E-mail: elhuya01@sarenet.es

✘ Koadernatzeko tapak nahi ditut  
(625 pta.)

Izen-deiturak

\_\_\_\_\_

Helbidea

\_\_\_\_\_


Hiria \_\_\_\_\_

Tel. \_\_\_\_\_

P.K. \_\_\_\_\_

# N

## ATURA eta INGURUGIROA



### Migrazioa nola egin erakusten

**E**statu Batuetako ekialdean hamar *Cygnus buccinator* beltzargari udazkenean migrazioa nola egin behar duten irakatsi nahi diete. Preso hazitako hegaztiak dira eta naturan aske utzi zituztenean ez zekiten migrazioa nola eta nora egin behar zuten.

Irakasle-lanetan delta-hegal motoreduna erabili dute eta umetatik motorearen zaratarra ohiturik daudenez gero, 160 kilometro egin dituzte.

Datorren urtean bidea luzeagoa izango da eta Kanadaraino gidatuko dituzte. Hortik aurrera beltzargek beren ingurune naturalean bakarrik ibili beharko dute, gizakiaren laguntzarik gabe.

### Kranpoiak jasaten dituen zohia

**F**utbol-zelaietan edo rugby-zelaietan jokalariek oinetakoe-tan izaten dituzten kranpoiak belarrari kalte handia eragiten diote. Horregatik zohi-mota bereziak erabiltzen hasi dira eta horietako bat probatuko dute aurten hiru talderen estadioetan. Quenn's Park Rangers, Aston Villa eta Chelsea dira, hain zuzen, hiru talde horiek. Zohi berria prestatu dutenak Britainia Handiko Aberystwyth-eko Unibertsitatea eta Herbehereetako Desso etxea izan dira. Bi zentimetroko tartearekin polipropilenoazko 20 zentimetro luzeko zurtoin finak sartzen dira lurrean. Belarraren sustriak zurtoin hauen inguruan biltzen dira eta

Artxibokoa



Britainia Handiko Aberystwyth-eko Unibertsitatea eta Herbehereetako Desso etxeak diseinatu dituzten kranpoi berriek kalte gutxiago egiten diote belarrari.

zohiaren lurpeko sarea askoz ere indartsuagoa da. Horrela kranpoien erasoaren kontrako erresistentzia hiru aldiz handiagoa da.

### Amazoniako beste primate bat

**T**ximino txiki berezi bat aurkitu berri dute Brasilen Amazoniako oihanean. Inguruan herriak daudelako ez zirudien leku horretan erreserba biologiko handirik zegoenik, baina bertan topatu dute 10 zentimetro luze eta 190 gramoko primate txiki hau. Orain arte aurkitutako txikienetakoa da eta Marc Van Roosmalen aurkitzaileak "buru beltzeko titi nanoa" deitu dio.



Artxibokoa



Delta-hegal motoreduna erabiliz irakatsi diete beltzargei migrazioarako bidea egiten. Aurten 160 kilometroko ibilbidea egin dute eta datorren urtean Kanadaraino gidatuko dituzte; hortik aurrera bakarrik moldatu beharko dute.